


Pedagogiako Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

DONOSTIA | SAN SEBASTIAN



VII. MODULUA:

GARAPEN PROFESIONALA ETA PRAKTIKA PEDAGOGIKOA

Moduluko gida

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

■ EDUKIAREN DESKRIBAPENA. VII. MUDULUA ARTIKULATZEN DUEN LOGIKA.....	2
■ VII. MODULUAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK.....	3
■ VII. MODULUAREN GAIK.....	4
■ IRAKUNTZA-EMAITZAK, GAITASUNEN ARABERA.....	4
■ VII. MODULUAREN EGITEKOAK	5
■ IRAKASKUNTZAREN KOORDINAZIOA	5
■ METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA	6
○ PRESTAKUNTZA-JARDUERAK.....	6
○ EBALUAZIO-SISTEMA.....	6

■ EDUKIEN DESKRIBAPENA. VII. MUDULUA ARTIKULATZEN DUEN LOGIKA

Modulu honek Pedagogiako tituluaren laugarren maila osoa hartzen du; hots, lehen eta bigarren lauhilekoak, eta haren helburu nagusia da ordura arte karreran jasotako prestakuntza sendotzea. Ikaslea lan-arloan murgiltzen da, eta lotura bat sortzen da horrela arlo akademikoaren eta laboralaren artean, praktikaren gaineko hausnarketa-, azterketa- eta sistematizazio-prozesu batean.

Practicumaren bidez (24 kreditu), ikaslea harremanetan jartzen da aurreko ikasturteko VI. moduluan lehenengoz ezagutu zituen benetako gune profesionalekin. Practicuma profesionalizaziora gehien hurbiltzen den prestakuntza-osagaia da, eta, profesionalen errealitatean murgilduta, lagungarria da pedagogoaren profila eraikitzeko. Praktikak egin bitartean, Fakultateak jarraipena egingo du, eta ikasleak beste ikaskide batzuei bizi izandako garapen profesionalaren berri eman ahal izango die. Horretarako, ikasleak erlazio profesionalaren errepresentazioa egin, horren gainean hausnartu, bizi izandako hezkuntza-jardueraren balioaz galdetu, arazoak konpontzen ikasi, eta lanbidean ezinbestekoak diren trebetasunak eta jarrerak finkatuko ditu.

Ikasleak, halaber, practicumari lotutako nahitaezko irakasgai bat izango du –Hezkuntza Jardueraren Teoria eta Praktika (6 kreditu)–, eta garapen profesionalaren hainbat arlori lotutako hautazko lau gaiak osatutako eskaintza. Komunikazioa Euskaraz, Gaur Egungo Hezkuntza Euskal Herrian, Hezkuntzako Esku-hartzea Gatazken Ebazpenean, Etengabeko Hobekuntza eta Ekimena, eta Osasuna eta Hezkuntza (bakoitzak 6 kreditu). Hautazko lau irakasgai horien artetik, Ikasleak hiru egin beharko ditu.

Gradu Amaierako Lanak (GRAL, 12 kreditu) izaera integratzailea du, eta tituluaren definitutako gaitasun guztiak mobilizatzen ditu interes pertsonalak, egindako ikasketak eta bizi izandako esperientziak bateratuz. Halaber, karreran jasotako ikasketak sendotzen ditu eta, berrikuntzako eta ikerketako proiektu baten ikuspegia eduki behar du. Lan hau egitea ezinbesteko eskakizuna da Pedagogiako titulua eskuratu ahal izateko

■ VII. MODULUAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

- Jarrera enpatikoa, arduratsua, solidarioa eta konfiantzazkoa izatea hezkuntzako pertsonekin eta erakundeekin, eta horretarako baldintza egokiak sortzea.
- Jardun profesionalerako egokiak izan daitezkeen estrategiak eta prozedurak erabiltzea (laneko teknikak, protokoloak, dinamikak, prozesuak...), diziplinarteko ikuspuntutik.
- Jakintza garatzea, jardun profesionalaren eta tituluko moduluetan eskuratutako jakintzen azterketatik abiatuta.
- Ekintzaitzerekiko jarrera positiboa izatea, hezkuntzako esku-hartzea eta garapen profesionala hobetzen laguntzeko.
- Praktiken aldi osoan eginiko prozesu guztia zehaztasun zientifikoz lantzea, dokumentuak eta txostenak sortuz (egunkaria, memoria, mintegietako aurkezpenak, gradu amaierako proiektua...), eta proiektuaren bideragarritasuna/aplikagarritasuna uste osoz komunikatzea.
- Pedagogiako profesionalek esku hartzen duten hainbat arlotan hezkuntza-planak eta hezkuntza-proiektuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea, eta horretarako beharrezkoak diren tresnak, lan-dinamikak eta baliabideak erabiltzea.
- Talde profesionalen esparruan txertatzeko eta lankidetzan jarduteko gai izatea, antolatzeke, kudeatzeko eta dinamizatzeko gaitasuna erakutsita.
- Jakintza teorikoan eta praktikoan jasotako ikuspegiak ahoz zein idatziz adieraztea.
- Aurrera begira ikasketak autonomia-maila handiarekin ekiteko beharrezkoak diren ikaskuntza-gaitasunak garatzea.

VII MODULUKO IRAKASGAIAK

Ikasleak gaitasunak lantzen joango dira Garapen Profesionala eta Jardun Pedagogikoa izeneko 7. modulu hau osatzen duten gaien bitartez. Modulua honako gai hauek osatua da:

IKASTURTEA	MODULUA	IRAKASGAIAK	ECTS
4	M7- GARAPEN PROFESIONALA ETA PRAKTIKA PEDAGOGIKOA	1. HILEKOA	
		→ Hezkuntza-jardueraren teoria eta praktika	6
		→ Practicum II	24
		2. HILEKOA	
		→ Hautazkoa 9: Gaur Egungo Hezkuntza Euskal Herrian	(6)
		→ Hautazkoa 10: Hezkuntzako Esku-hartzea Gatazken Ebazpenean	(6)
		→ Hautazkoa 11: Etengabeko Hobekuntza eta Ekintzailtza	(6)
		→ Hautazkoa 12: Osasuna eta Hezkuntza	(6)
		→ Gradu Amaierako Lana	12

Parentesi artean emandako kreditu kopurua hautazko irakasgaiari dagokio. Ikasleak 18 kreditu aukeratu beharko ditu, modulua 60 kredituak osatzeko.

■ IKASKUNTZA-EMAITZAK GAITASUNEN ARABERA

- Dokumentuak eta txostenak zorrotasun zientifiko egitea, eta horretarako jasotako ikaskuntza egituratzea bai eskuratutako ezagutzei dagokienez bai garatutako prozedurei eta jarrerei dagokienez.
- Memoria egitea, practicumeko prozesuaren emaitza gisa.
- Mintegietan sistematikoki aurkeztea kanpoko praktiken garapen-prozesua.
- Lankidetzako parte-hartzea, practicumaren jarraipenerako tutoretzen esparruan.
- Hezkuntzaren teoriari eta praktikari buruzko hausnarketa praktikoa egitea.
- Pedagogiako profesionalen esku-hartzeko arlo baten bati lotutako hezkuntza-proiektu berritzailea diseinatzea

■ VII. MODULUAREN EGITEKOAK

A Aurreko moduluarekin alderatuta, modulu honetan ez da Moduluko Diziplinarteko Jarduerarik egingo. Pedagogiako graduaren azken modulu honen ezaugarriak kontuan hartuta, zeinak II. practicum eta Gradu Amaierako Proiektua biltzen baititu, bi egiteko orokor hauek proposatzen dira:

- 1.- Memoria bat, ikasleak barneratu duen hezkuntza-jardueraren hurbiltze-eta azterketa-prozesua jasoko duena, baita ezagutzaren eraikuntza ere, taldeko elkarrekintzan egindako jarduera pedagogikoaren inguruan.
- 2.- Gradu Amaierako Proiektuan karreran jasotako ezagutza teorikoak eta praktikoak testuinguruan jartzea, aztergai batean bilduta eta ildo profesional baten ikuspegitik.

IRAKASKUNTZA-KOORDINAZIOA

VII. moduluaren konplexutasunak, Gradua amaitzen baita, sailen arteko koordinazio-prozesua aurreko moduluetakoa baino handiagoa izatea eskatzen du; izan ere, batetik, tituluaren inplikaturako sail guztiak sartzen dira, eta, bestetik, koordinazioa ikaslearen tutore guztiekin egin behar da, kanpoko praktikak egitean.

Horrez gain, Practicumeko Batzordearekin eta Gradu Amaierako Batzordearekin lotura estua eduki behar da, azkeneko modulu honi lotutako pertsona eta egitura guztien elkarguneak ahal bezain ona izan behar baitu.

Era berean, garrantzi handia izango dute unibertsitateko egituretako ordezkarien eta Practicumean lankidetzan diharduten erakunde laguntzaileen ordezkarien arteko bilerek.

Graduko Koordinazioaz arduratzen den pertsonak dinamizatu beharko ditu aipaturako taldeen arteko harremanak.

■ METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA

PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Eskola Magistralak, mintegiak eta tailerrak lehenetsiko dira, proposamen praktikoan eta kasu-azterketan bitartez talde-lanari lotutako gaitasunak garatzeko. Halaber, taldeko eta banakako tutoretza-saioak egingo dira.

Practicumari lotuta, laneko mintegiak planteatzen dira, pedagogiaren profesionalek garatutako funtzioak eta balizko hezkuntza-testuinguruak ezagutzeko. Aldi berean, laneko guneak garatuko dira, pedagogoak testuinguru profesionaletan txertatzea erraztuko duten gaitasunen inguruan (ikus II. practicumaren egitaraua, webgunean).

GRALari lotutako prestakuntza-jarduerei dagokienez, sail bakoitzak bere azterketa-arloak proposatuko ditu. Tutoretzak ikaslea gidatuko du proiektua eraikitzeko prozesuan eta horren aurkezpenean, laguntza, gidaritza eta orientazioa eskainiz (ikus Pedagogiako GRALaren gida webgunean).

EBALUAZIO SISTEMA

Nahitaezko eta hautazko gaiak ebaluatzeko, proba idatziak eta ikaskuntza-prozesuaren ebaluazio etengabea ahalbidetuko duten jarduerak egingo dira.

Practicumari dagokionez, praktiketako ikastetxearen begiraleak eta Fakultateko tutoreak ebaluazio etengabea egingo dute, eta, horrez gain, II. Practicumaren memoria deskribatzailea baloratuko da (ikus II. Practicumaren Egitaraua, webgunean).

Gradu Amaierako Lanaren ebaluazioari dagokionez, ikasleak lana aurkeztu beharko du, epaimahai baten aurrean. Horren osaera eta ebaluatzeko irizpideak Pedagogiako GRALaren Gidan kontsulta daitezke, webgunean.

